

**2023KO AZAROAREN 28AN EGINDAKO
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Olaia Nieto Legarra
Mikel Iturbe Saizar
Noelia Lataburu Ortiz
Ioritz Lazcano Aranalde
Gorka Sagarna Larrañaga
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga
Begoña Tolosa Mendia
Idoia Garayalde Goicoechea

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2023ko azaroaren 28an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari irekia izango da, eta edozein herritarrek bere eskura izango ditu bileraren akta eta audio grabazio argitaratu ondoren eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*2023-06-17ko bilkurako aktaren onespena. **Ez da onartu, EAJko kideek kargu hartzea egin zuten eguneko esaldia oker dagoela adierazi dute, hurrengo batzarraaldira akta zuzenduta eramango da.**

*2023-09-26ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

*2023-10-19ko bilkurako aktaren onespena. **Aho batez onartu da.**

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO IRAILAREN 22TIK 2023KO AZAROAREN 22RA (2023/258 - 2023/297).

Alkatetzak 2023ko irailaren 22tik 2023ko azaroaren 22ra bitartean (2023/258 - 2023/297) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2023KO ORDENANTZA FISKALEN AKATS ZUZENKETAREN ONARPENA.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du, ordenantzen aldaketa egin zenean akats bat zegoela Cross training ikastaroan, 205€ izan beharrean 250€ zegoela idatzia. Baina orain arte ez dela inor ohartu, orain arte kkobratu dena ongi kobratu dela eta besterik gabe orain jendeaurrean daudenez aldaketa hori onartzea izango litzatekeela.

IRURAKO UDALA

Akats zuzenketa.

2022ko abenduaren 15ean, 236 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, «2023. Urteko Ordenantza fiskalak behin betiko onarpena» argitaratu zen. Bertan, Kross training ikastaroetako kuotan, akats bat antzeman denez, honako zuzenketa egitea da 2024ko ordenantza fiskalan behin behinean iragarrita daudenepean.

Uztailaren 5eko, 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzailleak ezarritakoaren arabera, Udalbatzak 2023ko urriaren 19an hartutako behin-behineko erabakia jendaurrean jartzeko epea bete eta Ordenantzak ezarri eta bertako kuota eta tarifen aldaketa behin betikotzat hartzen dira eta 2024ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean. Aldatutako testuak jarraian agertzen direnak dira:

— Hurrengoa esaten duen lekuan:

7.Kirol eta kultura zerbitzuen tasak:

A) Ikastaroak (txanda bakarra)

(...)

— Cross training: 250 €

(...)

— Hurrengoa esan beharko luke:

7.Kirol eta kultura zerbitzuen tasak:

A) Ikastaroak (txanda bakarra)

(...)

— Cross training: 205 €

(...)

Iruran, 2023ko azaroaren 23an—Irantzu Arrizabalaga Gainza.- Idazkari-Kontuhartzailea.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu) eta 3 (EAJ/PNV).
PROPOSAMENA AHOBATEZ ONARTU DA.**

**4.- IRURAKO UDALA ETA IKASTOLAREN ARTEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA:
“2023/2024 IKASTURTEKO ESKOLA KIROLA”.**

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du urtero sinatzen den hitzarmena dela, alde batetik, Aldundiak ematen duen bezain besteko kopurua jartzen duela udala eta bestetik, igeriketarako haur bakoitzeko 7 € ematen direla zuriketa egin ondoren.

Iruran, 2023eko azaroaren 30ean

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO Irurako Alkate-Lehendakari Jn.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2022ko azaroaren __an hartutako erabakiz, ekintza hontan Udalaren izen eta ordezkariitzepean aritzeko egokiro baimendua izan dena eta nik lagunduta Irantzu Arrizabalaga Gainza And., Irurako Udalaren idazkari- kontuhartzailea fedea emateko legearen arabera.

Bestetik, N.A.N. 44142969N zenbakia duen, Ainhoa Leunda Merketegi Anderea, Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkariitzepean, 2022ko abendauren 16an eginiko batzar orokorraren baitan.

AZALPENA

Indarrean dagoen arautegiaren arabera (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena), Udal administrazioei dagokie foru organoek egin eta onartutako eskola kirolari buruzko programak aurrera eramaten koordinatuki laguntzea.

Eskola kirolari buruzko 2008ko uztailaren 1eko 125/2008 dekretuaren arabera, ikastetxeak dira eskola kirola egiteko oinarrizko lekuak eta ikasleei kirola egiteko bidea ireki behar dienak, antolaketa, heziketa eta administrazioaren arduradun izanez.

Arautegi horri jarraituz, Irurako Udalak eta Irurako Ikastola Koop. Elk.-k interesgarriztat jotzen dute ikastetxeak parte hartzea eskola kirola begiratu eta kudeatzeko egiturak jarri eta gauzatzen.

KLAUSULAK

1.-Irurako Ikastola kooperatiba Elkarteak bere gain hartzen du eskola kirola aurrera eramateko behar den egitura garatzeko konpromisoa, jarduera horiek eskatzen dituzten koordinazio, teknika eta heziketa lanak egiteko beharrezkoa izango dena.

2.- Egitura horren barruan eskola kiroleko koordinatzailearen figura egongo da. Eta ikastola izango da koordinatzaile horren eta behar diren eskola kiroleko teknikarien eta zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen ordezkarien arteko harremanak zehaztuko dituen, Kirol jarduera horiek ikastetxearen heziketa proiektuan txertatuta gera daitezzen.

3.- Kirol jardueretan lan egingo duten guztiak elebidunak izan daitezela bermatu behar du ikastolak, eta bere eskuan dagoen guztia egingo du eskola kirolean ohizko hizkuntza euskara izan dadin.

4.- Ikastolak egingo du ikasturte bakoitzean eskola kirolean gauzatuko diren jardueren programa eta programa horretan jarduera guztiak sartuko ditu (ikastolan bertan edo klub batean). Jarduera programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Eskola Kiroleko Programak finkatutako jarraibideak, udal Kirol politikaren interesak eta ikastolaren beraren helburuak kontuan hartuz egingo da.

5.- Ikastolak heziketa eta jolas lehiaketarako kirol anitzeko programa egin eta benjamin eta alebinen kategorietan, aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

6.- Ikastetxeak eskola kiroleko heziketa helburuak betetzen direla zaindu behar du, ikasle guztiei dauden jardueretan, helburuak lortzeko moduko baldintzetan, parte hartzeko bidea emanaz.

7.- Udalak eskola kiroleko jarduerak gauzatzeko herrian beharko liratekeen Kirol instalazioak jarriko ditu.

8.- Ikastolak herriko Kirol klubak laguntza eskatuko du, ikasle gazteenak hasi behar dutenean kirola egiten kirol klub horietako teknikariek parte har dezaten, ikastolak finkatutako heziketa helburuei jarraituz. Era berean, ikastolak bideak ireki behar ditu, adin jakin batzuetan eta kirol modalitate bakoitzaren ezaugarrien arabera, ikasleek kirola egin dezaten, bai errendimendu lehiaketetan bai jolasekoetan, eskola urteak amaitu ondoren.

9.-Ikastola izango da egitura hori finantzatzeko behar diren baliabideak

erabakiko dituen, hor sartuko direlarik parte-hartzaileen ekarpenak, ikastolaren titularrarenak, gurasoen elkartearenak, herri diru-laguntzak edo egokitzen hartzen duen bestelako edozein.

10.- Irurako Udalak eskola kiroleko jarduerak kudeatzeko, ikastolak eta udalak osatutako eskola kiroleko batzordea eratu eta aurrera ateratzeko konpromisoa hartzen du, horretarako behar diren baliabideak jarriaz.

11.-Udalak herriko Kirol instalazioak eskolako kiroleko jardueretan erabiltzen uzteko konpromisoa hartzen dute, udalerriko kirol instalazio guztien erabilera koordinatu baten barruan.

Frontoiaren kasuan, astean zehar, arratsaldetan, 18:30arteko jardueretan, frontoiaren zati bat herritarrek erabiltzeko utzi beharko du ikastolak.

12.- Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, eskola-kirolaren egiturak 2023-2024 ikasturtean zehar eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak helburu horretarako udalari ematen dion toki erakundeei eman beharreko diru-laguntza kontzeptuan ematen diona eta beste hainbeste, aipatu gastuei aurre egiteko.

13.-Gainera, Irurako Udalak emango dio Irurako Ikastolari, igeriketa kanpainak 2023-2024 ikasturtean eragindako gastuari aurre egiteko, kanpainan parte hartutako ume bakoitzeko 7€ko diru-laguntza, beti ere ikastolak kanpainak eragindako informazioa udalean aurkeztu ondoren.

14.- Diru ekarpena finantzatzeko da 2023ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.00.00.481.326.00.10 2023 (1379)

15.-Hitzarmena sinatu ondoren, ikastolak ondorengo agiri hauek aurkeztu behar ditu:

Egituraren diseinua: helburuak, edukia eta antolakuntza.

Ikastolaren eskola kiroleko jardueren urteko programa.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru-laguntza zuzitzeko eskatzen duen Memoria eskola Kirola 2023-2024 formularioa behar bezala bete eta bertan agertzen diren datuak egiaztatzeko agiriak.

d) Kirol klubekin lankidetzak hitzarmenak izenpetu baditu, hitzarmen horien kopia.

e)Gainera, hurrengo agiriak ere aurkeztu behar ditu:

-Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren kuotak egunean dituztela egiaztatuko dituen agiriak.

-Aitortza arduratsua, betetzen dituela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. Artikuluan ezarritako onuradun izaera lortzeko baldintzak.

16.- Hala ere, bete behar ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruz otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatutako baldintzak, eta haien artean: Irurako ikastolak, genero-ikuspegia kontutan hartu beharko du ondorengoak betez:

-Ikastolaren jarduerak sustatzeko egiten dituen kartel, testu eta agirietako edukitan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin beharko du.

-Bermatu beharko du, ikasle guztiak aukera berdina edukitzea sexuaren araberako bereizketarik egin gabe. Gainera, ez du onartuko ikasleen arteko genero bereizketarik.

-ez du sortuko sexuagatiko bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen jarduerarik.

17.- Hitzarmen honen klausulak interpretatzeko orduan gerta daitezkeen zalantzak udalak erabakiko ditu.

18.-Hitzarmen honetako klausulak ez betetzeak hitzarmena desegitea ekarriko du.

Nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut, eta bi alderdiak ados daudela adierazteko, hitzarmen hau izenpetu dute nirekin batera, goian adierazitako egun eta lekuan.

ALKATEA

IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), 3 (EAJ/PNV).
PROPOSAMENA AHOBATEZ ONARTU DA.**

5.- MOZIOA: IRURA MORETUZ. “IRURAKO ZAINZA SISTEMAREN DIAGNOTIKO ERREALA ETA OSATUA:

Alkateak gaia azaldu aurretik, Begoña Tolosa zinegotziak hitza eskatu du, prozeduraren inguruko azalpen batzuk eskatuz.

Alkateak Irurako udalak hartuta duen irizpidea azaldu dio, hau da, udalean aurkezten diren mozio denak udalbatzara aurkeztea.

Ondoren, Idazkariak hartu hitza, eta adierazi du, gai ordena prestatzeko eskumena Alkateak duela eta hori errespetatzen dela, idatziaren eskaera/mozio izaerari baino arreta gehiago jartzen zaiola edukiari formari baino.

Jarraian, Noelia zinegotziak irakurri du idatzia:



Euskal Herriko Mugimendu Feminista aspalditik salatzen ari zena azkartu zuen pandemiak, eta zaintza krisia azalatu eta azkartu egin zen urte horietan. Egoera ikusita, Denon Bizitzak Erdigunean plataformak zaintza sistema iraultzeko prozesua abiatu zuen 2022. urtean, eta 2023ko azaroaren 30ean greba feminista orokorra egitea erabaki dugu zaintza eskubide kolektiboaren alde.

Testuinguru horretan, Irurako Udalarari eskatu nahi diogu 2024. urterako aurrekontu sailetan onar dezala konpromiso hau betetzeko behar den diru partida, eta egikaritu dezala honako eskaera hau:

1- Irurako zaintza sistemaren diagnostiko erreal eta osatua egitea, eta horri erantzun dion zaintza plan feminista eta integral bat osatzea urtebeteko epean.

Iruran, 2023ko urriaren 4an

TOLOSALDEAKO MUGIMENDU FEMINISTA

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), ABSTENTZIOAK 3 (EAJ/PNV).
PROPOSAMENA ONARTU DA.**

6.- MOZIOA: EH BILDU ETA EAJ/PNV. “AZAROAREN 25ERAKO EUDELEN 2023KO ADIERAZPEN EREDUA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA”.

Olaia zinegotziak hartu du hitza bi alderdiek mozio bera aurkeztu dute.

AZAROAREN 25erako EUDELen 2023ko ADIERAZPEN EREDUA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNARI BURUZKOA

Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egun honetan, azaroak 25, sexu-indarkeriak adingabeen artean gero eta eragin handiagoa duela azpimarratu eta arreta jarri nahi dugu, indarkeria mota hori ikusezinen eta normalizatuena baita, eta urtetik urtera gora egiten jarraitzen baitu.

Hainbat txostenen arabera, sexu-delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskek eta nerabeak. Adingabeen sexu-askatasunaren aurkako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek ere gora egin duten arren, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela indarkeria-adierazpen jakin batzuk antzemateko beren portaeran, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Mugimendu feministak eta adituek horien arrazoiak genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez izatea eta familietan eta eskola-inguruneetan gizarte-balio egokiak transmititu ez izana direla adierazten dute. Era berean, ohartarazten dute adingabeen artean genero-mito eta -estereotipoak hedatzen ari direla, baita haurren sexualizazioari eta pornografiaren bidezko sexu-hastapen goiztiarrari buruzkoak ere, neurri handiagoan, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimen sinesgarritasunik eza antzematen da, eta horrek eragotzi egiten du esku-hartze goiztiarra eta erreparatzailea, adingabeei egindako sexu-abusu eta sexu-erasoen kasuetan.

Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo-sexualen eta gizonen eta emakumeen harreman horietan duten rolaen irudi desitxuratua zabaldu da. Sexu-indarkeria hutsaldu eta legitimatu egiten da, emakumeen nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larrienen eraso sexualetara eta fisikoetara eramaten dezakete, baita, muturreko moduetan, emakumeen hilketetara ere.

Horren guztiaren aurrean, euskal erakundeek eskura dituzten estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar dituzte, emakumeek eta neskek bizitza garapen osoa izan dezaten, askatasun- eta segurtasun-baldintzetan. Hain zuzen ere, beraien desirak, afektuak eta sexu-portaerak derrigortzerik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero-estereotipoak eta genero-aginduak alde batera utzita.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak diren aldetik, udalerritan berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko bizikidetzarako baldintzak bultzatzeko arduradunak dira. Hori dela eta, Irurako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Indarkeria matxista prebenitzeko tokiko estrategia eratzea/hobetzea/indartzea, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz.
- Biktima adingabeen inguruan sexu-indarkerien antzematea eta arreta goiztiarra gaitzea/hobetzea, tokiko koordinazio-protokoloen bidez.
- Sexu-indarkerien biktimekin esku hartzen duten profesionalen prestakuntza-programak diseinatzea/ezartzea/eta ebaluatzea
- Sentsibilizazio-programak diseinatzea/garetzea/hobetzea herritarrekin, eta bereziki gurasoekin eta irakasleekin, IGEen bitartez, genero-ikuspegidun kalitatezko sexu-hezkuntzaren beharri buruzkoak.
- Hezkuntza ez-formaleko espazioetatik hezkuntza-prozesuak garatzen laguntzea, adingabeen indarkeria matxistaren aurkako jarrerak indartzeko.

Konpromiso horietan oinarrituta, honako ekintza hauek proposatzen dira:

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak
- Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gaitzetzeko estrategiak lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.
- Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, BELDUR BARIK programaren eta tokiko beste ekimen batzuen bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu, azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunean, haien udalerrietan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), eta 3 (EAJ/PNV).
MOZIOA AHOBATEZ ONARTU DA.**

**7.- MOZIOA: EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAK ETA EAJ/PNV.
“1080 EUROKO GUTXIENENKO PENTSIOARI BURUZKOA”.**

Alkateak hartu du hitza eta bi mozio daudenez gai berarekin Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak aurkeztutako irakurriko du. Idatziak honela dio:



EHPM-MPEH mozioa. Udaletan, foru-aldundietan eta EUDELen aurkezteko

Moción del EHPM-MPEH a presentar en ayuntamientos, DDFF y EUDEL

EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du IRURAKo Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.

El EHPM (Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria) nos dirigimos a ustedes para que en el pleno del ayuntamiento de IRURA procedan, si así lo consideran, a la APROBACION de una moción apoyando una de nuestras reivindicaciones fundamentales: **garantizar que todas las personas pensionistas dispongan de unos ingresos mínimos de 1080 euros en 14 pagas.**

Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:

"EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Adjuntamos al presente escrito, el informe resumido que hemos elaborado y presentado en la comparecencia ante la Comisión de Políticas Sociales y Juventud del Parlamento Vasco en la que solicitamos y justificamos dicha reivindicación, cómo hacerla efectiva y la estimamos de su coste. El informe comienza con dicha demanda:

"Con el presente informe, elaborado por el EHPM-MPEH pretendemos impulsar nuestra demanda inmediata de establecer para el año 2023 la Pensión Mínima en 1080 euros. Esta demanda la dirigimos tanto al gobierno del Estado como a los gobiernos de la CAV y Navarra; a estos últimos además les demandamos que, mientras no se fije la pensión mínima que hoy está en 783 euros en esa cantidad, complementen dicha pensión mínima hasta 1080 euros en catorce pagas.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu. "

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizibaldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizikostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errebalorizatzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa 601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea. "

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponenzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte

Con este informe damos un paso más en la explicación de nuestra demanda y calculamos una estimación económica del presupuesto necesario en la CAV y Navarra."

Además, en dicho informe (como podrán ver) manifestamos que esta demanda es una necesidad social urgente y de justicia porque las instituciones públicas tienen la obligación de adoptar las decisiones precisas para garantizar a la ciudadanía unas condiciones de vida dignas; condiciones que en el caso de las personas mayores y pensionistas que no disponen de ingresos procedentes de su trabajo pasan por garantizar unos ingresos mínimos suficientes.

El establecimiento de la pensión mínima de 1080 euros reduciría considerablemente la brecha de género en pensiones. Las consecuencias de la NO revalorización de las pensiones en función del incremento del coste de la vida son manifiestas como se puede ver en el Informe pg. 13: *"...constatamos que en los últimos años (2011 a 2023) el SMI se ha incrementado de 641,40 euros a 1080 euros y sin embargo la pensión mínima sólo ha aumentado de 601,40 euros a 783 euros. Las pensiones son sin ninguna duda salario diferido y su cuantía está directamente relacionada con los salarios que se perciben por lo que también la pensión mínima debe de tener como referencia el SMI. Es inaceptable que en 2011 la PM fuera el 93,7% del SMI y en 2023 sea el 72,5%."*

En el actual contexto de crecimiento exponencial del coste de la vida cada vez más pensionistas ven truncadas sus posibilidades de acceder a una vivienda saludable y adecuada a sus necesidades, una alimentación sana, garantizar su salud y la atención efectiva para paliar sus necesidades de atención a la dependencia etc. Hoy 167.718 personas pensionistas en la CAV tienen ingresos por pensiones por debajo de

pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonen ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

los 1080 euros, la inmensa mayoría de las cuales son mujeres.

La pensión mínima en todas sus variables tiene nombre de mujer. Es algo que se constata en la brecha de género que tiene como antecedente la desigualdad de salarios y la asignación unilateral de las mujeres al trabajo no remunerado o mal pagado en el ámbito de la reproducción y los cuidados.

Esta reivindicación de 1080, tiene la legitimidad que le otorgan las decenas de miles de personas que han participado y participan en nuestras movilizaciones desde hace más de cinco años.

Concluimos que no hay razón ni económica ni política para no hacerlo y no podemos esperar un día más.

**Horregatik, IRURAKo udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:
Por ello demandamos del pleno de la corporación municipal de IRURA la decisión de:**

1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2 EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia.

1.- Demandar al Gobierno y Parlamento de la CAV que complementen hasta 1080 euros por 14 pagas la pensión mínima de las personas pensionistas con efectos retroactivos a enero de 2023.

2.- Enviar al Gobierno y Parlamento de la CAV notificación de la decisión adoptada en el pleno de este ayuntamiento.

Euskal Herria 2023ko Azaroak 9 / 9 de Noviembre de 2023

PONENTZIA

LABURPENA

Gutxieneko Pentsioa

1080

Hemen eta Orain

HEGO EUSKAL HERRIA



2023- MAIATZA-15 ERROLDATUTA-REGISTRADA EL 15-MAYO-2023

SIERe996438b-8de1-47c9-aa28-e8b73fa72e4a

**EHPM-MPEHREN TXOSTENAREN LABURPENA,
1080 EUROKO GUTXIENEO PENTSIOARI BURUZKOA
RESUMEN DEL INFORME DEL EHPM-MPEH
POR UNA PENSIÓN MÍNIMA DE 1080 EUROS**

EHPM-MPEHk aurkeztutako txostenaren bidez, bultzada berri bat eman nahi diogu 2023rako Gutxieneko Pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaerari; nahiz eta erreklamazio hori Estatuko gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuari zuzentzen diegun, azken horiei eskatzen diegu, Estatuak kopuru hori finkatzen ez duen bitartean, gutxieneko pensioa 1080 euroraino osatzeko hamalau ordainsaritan, ezkontidea ardurapean ez duen pentsioduna erreferentziatzen hartuta.

Erabaki hori hartzea EAEko eta Nafarroako gobernuen eta parlamentuen borondate politikoaren mende dago, eta ez dago hori eragozten duen arrazoi politiko edo ekonomikorik.

Helburu horrekin, gure eskaria justifikatzen duten arrazoiak azaltzen ditugu, bai eta eskari horrek diru-kutxa publikoentzat izango duen kostuaren zenbatespena ere.

Gure arrazoiak:

Estatistiken atzean hezur-haragizko aurpegiak daude eta, batez ere, eskubide sozioekonomikoak daude.

Erakunde publikoek beharrezko erabakiak hartu behar dituzte herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko; baldintza horiek, beren lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponontzialaren testuinguruan, gero eta adineko eta pentsiodun gehiagok beren beharretara

Con el informe presentado por el EHPM-MPEH pretendemos dar un nuevo impulso a nuestra demanda inmediata de establecer para el año 2023 la Pensión Mínima en 1080 euros; aunque esta reclamación la dirigimos tanto al gobierno del Estado como a los gobiernos de la CAV y Navarra, a estos últimos les demandamos, que mientras el Estado no fije esa cantidad, complementen la pensión mínima hasta 1080 euros en catorce pagas teniendo como referencia a la persona pensionista con cónyuge no a cargo.

Tomar esta decisión solo depende de la voluntad política de los gobiernos y parlamentos de la CAV y Navarra y no hay razones políticas ni económicas que lo impidan.

Con este objetivo exponemos las razones que justifican nuestra demanda y la estimación del coste que la misma implica para las arcas públicas.

Nuestras razones:

Detrás de las estadísticas hay rostros de carne y hueso y sobre todo hay derechos socioeconómicos que hay que satisfacer.

Las instituciones públicas tienen la obligación de adoptar las decisiones precisas para garantizar a la ciudadanía unas condiciones de vida dignas; condiciones que en el caso de las personas mayores y pensionistas que no disponen de ingresos procedentes de su trabajo pasan por garantizar unos ingresos mínimos suficientes.

En el actual contexto de crecimiento exponencial del coste de la vida cada vez mayor

egokitutako etxebizitza osasungarri bat, elikadura osasuntsu bat, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzeko aukerak eten egiten dituzte, mendetasunari arreta emateko dituzten premiak arintzeko.

Gaur egun **167.718** pentsiodunek EAEn eta **51.306** pentsiodunek Nafarroan, 1080 eurotik beherako pentsioak dituzte, gehienak emakumeak.

Lan-baldintzen prekarizazioak, soldaten devaluazioak eta pentsioen murrizketek eraginda, gizon eta emakume askok pentsio eskasekin bizi dira azken urteetan, bizitza osoa lanean eman ondoren.

Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.

Gizarte-jarduerako funtsezko zainketen lana emakumeek egin dute gehienbat mendeetan zehar, eta ordainsaririk gabe egin da, eta BPGren % 40ren baliokidea bada ere, oraindik ez da aintzat hartzen bizitza duina bermatzeko, emakumea kalteberatasun-, marjinazio- eta pobrezia-egoeran dagoenean.

Gaur egungo soldata-arrakala Nafarroan % 23,22koa da, eta EAEn % 19,5koa eta pentsioen batez bestekoa % 37koa. **Soldata-arrakala hori gainditzeak** (estatu mailan) Gizarte Segurantzaren diru-sarrerak urtean 18.500 M gehiago handitzea ekarriko luke. Genero-arrakala ezabatzea, eskubidez gain, berme bat ere bada gizarte-segurantzaren kutxetarako, diru-sarrera gehigarriak gehituko bailituzkete

PSPren arazoa ez dago gastuaren atalean, diru-sarreretan baizik. Kalitatezko enplegua eta

número de personas mayores y pensionistas ven truncadas sus posibilidades de acceder a una vivienda saludable y adecuada a sus necesidades, una alimentación garantizar su salud y la atención efectiva para paliar sus necesidades de atención a la dependencia etc.

Hoy **167.718** personas pensionistas en la CAV y **51.306** personas pensionistas en Navarra tienen pensiones por debajo de los 1080 euros, la inmensa mayoría mujeres.

La precarización de las condiciones de trabajo, la devaluación salarial y los recortes en las pensiones determinan que muchos hombres y muchísimas mujeres vivan los últimos años con pensiones insuficientes tras una vida entera de trabajo.

La pensión mínima en todas sus variables tiene nombre de mujer. Es algo que se constata en la brecha de género que tiene como antecedente la desigualdad de salarios y la asignación unilateral de las mujeres al trabajo no remunerado o mal pagado en el ámbito de la reproducción y los cuidados.

El trabajo de los cuidados fundamental en la actividad social ha sido realizado mayoritariamente por las mujeres durante siglos y ha sido realizado sin remuneración alguna y aunque equivale al 40% del PIB sigue sin ser reconocido para garantizar una vida digna, cuando la mujer se encuentra en situación de vulnerabilidad, marginación y pobreza.

La brecha salarial actual en Navarra es el 23,22% y en la CAV 19,5% y la de pensiones de media el 37%. **Superar esta brecha salarial** a nivel estatal supondría incrementar los ingresos de la Seguridad Social unos 18.500 M/años adicionales por año. Eliminar la brecha de género, además de un derecho es una garantía para las arcas de la seguridad social que sumarían unos ingresos adicionales.

El problema del SPP no está en el capítulo del gasto sino en el de ingresos. El empleo de calidad

soldata hobeak eta genero-arrakala ezabatzea dira irtenbidea.

EAEko hileko batez besteko soldata 2.452 euro gordinekoa 14 ordainsaritan (2021) eta Nafarroakoa hilean 2.250 euro gordinekoa 14 ordainsaritan, Europako 10 ekonomia aurreratuenetako 3.078 euro gordinekin bat etorri gero, gizarte-kotizazioak ez lirateke nahikoak izango PSPri eusteko, baizik eta prestazioak eta bermeak nabarmen hobetu litezke. Gauza bera gertatuko litzateke LGS batez besteko soldata horren % 60an ezarriko balitz.

Gure proposamena.

EAEn zein Nafarroan gutxieneko pentsioa osatzeko berariazko arau-esparrua garatzea. Gizarte Segurantzaren oinarritzko legea garatzeko bidea aztertzea, eta, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta Nafarroako Hobekuntzan ezarritako eskumenak transferitzea. EAEko langile guztiei pentsio publiko duin, bidezko eta nahikoak bermatzeko behar diren ekimenak planteatzea.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ETA NAFARROAN 1080 EURO OSATZEKO BEHARREZKOA DEN AURREKONTUAREN KUANTIFIKAZIOA

1080 euroko osagarriaren kostu ekonomikoa kalkulatzeko, zenbatespen bat egin dugu Gizarte Segurantzaren estatistikek ematen dizkiguten datuekin.

Kalkuluan, pentsio bikoitzak deskontatzen ditugu; eta tratamendu desberdina ematen diegu (adinari dagokionez) umezurtz-pentsioei eta Senideen aldeko pentsioei.

Gure kalkuluaren arabera, kotizaziopeko pentsioaren diru-sarrerak zenbateko horretatik behera dituzten pertsonen 1080 euroraino osatuko zaizkie 14 ordainsaritan, Gizarte

y mejores salarios junto con la eliminación de la brecha de género es la solución.

Si el salario medio de la CAV de 2.452 euros mensuales brutos en 14 pagas (2021) y el de Navarra de 2.250 euros mensuales brutos en 14 pagas convergiera con los 3.078 euros brutos de las 10 economías europeas más avanzadas las cotizaciones sociales no sólo serían suficientes para mantener el SPP sino que se podrían mejorar ostensiblemente las prestaciones y garantías. Lo mismo sucedería si se estableciera el SMI en el 60% de ese Salario Medio.

Nuestra propuesta.

Desarrollar tanto en la CAV como en Navarra un marco normativo específico para el complemento de la pensión mínima. Explorar la vía del desarrollo de la Ley básica de la SS y la transferencia al menos de las competencias establecidas en el Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Amejoramiento navarro al respecto. Plantear las iniciativas precisas para garantizar al conjunto de trabajadoras y trabajadores de la CAV unas pensiones públicas dignas, justas y suficientes.

CUANTIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO NECESARIO PARA COMPLEMENTAR A 1080 EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA Y EN NAVARRA

Para el cálculo del coste económico del complemento a 1080 euros hemos hecho una estimación con los datos que nos dan las estadísticas de la Seguridad Social.

En el cálculo descontamos las pensiones dobles; y damos un tratamiento diferenciado (en cuanto a la edad), a las pensiones de orfandad y las de Favor de Familiares.

Nuestro cálculo contempla complementar hasta 1080 euros en 14 pagas a las personas cuyos ingresos de pensión contributiva están por debajo de esa cantidad, independientemente de

Segurantzaren gutxienekoetarako osagarriko baldintzak alde batera utzita. Ateratzen den zenbatekoari kendu egin beharko litzaioke EAEn jada DSBE bidez egiten den ordainketa, eta Nafarroan PFEZ Legearen 68 art. ondorioz egiten dena.

Era berean, gutxieneko pentsioa 1080ra osatzeko erabakiaren eragin ekonomikoaren balorazio osoa egiteko, kontuan hartu beharko litzateke pentsiodunen pentsioaren gehikuntzaren ondoriozko zuzeneko edo zeharkako zergei dagokien zatia diru-kutxa publikoetara itzultzea.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

1080ra iristen ez diren adinaren eta generoaren arabera batez besteko pentsioei kopuru horretara iristeko tarte bakoitzean behar den kopurua aplikatuz.

Kotizaziopeko pentsioak. Erretiroa eta alarguntasuna

EAEn, urtean 173,6 milioi beharko genituzke 60.702 emakumeren pentsioak 1.080ri osatzeko, eta urtean 60,8 milioi, 25.294 gizonen pentsioak 1.080ri osatzeko. **Guztira, 234,4 M euro urteko.**

NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA

1080ra iristen ez diren adinaren eta generoaren arabera batez besteko pentsioei kopuru horretara iristeko tarte bakoitzean behar den kopurua aplikatuz.

Kotizaziopeko pentsioak. Erretiroa eta alarguntasuna

Nafarroan 47,27 M€/urte beharko genituzke 1.080ri osatzeko 18.576 emakumeren pentsioak eta 20,28 M€/urte 9.448 gizonen pentsioak 1.080ri osatzeko. **Guztira 28.024 pentsiodun. Guztira 67,6 M euro urteko.**

los requisitos para el complemento a mínimos de la SS. A la cuantía resultante habría que deducirle el pago que ya se realiza vía RGI en la CAV y por las deducciones que como consecuencia del art. 68 de la Ley del IRPF se realiza en Navarra.

Así mismo para hacer una valoración completa del impacto económico de la decisión de complementar a 1080 la pensión mínima habría que tener en cuenta la reversión a las arcas públicas de la parte correspondiente a los impuestos directos o indirectos de las personas pensionistas derivados del incremento de su pensión.

COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA

Aplicando a las pensiones medias por tramos de **edad y género** que no llegan a 1080, la cantidad necesaria en cada tramo para llegar a dicha cantidad.

Pensiones contributivas. Jubilación y viudedad

En la CAV necesitaríamos 173,6 Millones/año para complementar a 1.080 euros las pensiones de 60.702 mujeres y 60,8 Millones/año para complementar a 1.080 las pensiones de 25.294 hombres. **Total 234,4 M euros/año.**

COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA

Aplicando a las pensiones medias por tramos de edad y género que no llegan a 1080, la cantidad necesaria en cada tramo para llegar a dicha cantidad.

Pensiones contributivas. Jubilación y viudedad

En Navarra necesitaríamos 47,27M€/año para complementar a 1.080 las pensiones de 18.576 mujeres y 20,28 M€/año Millones/año para complementar a 1.080 las pensiones de 9448 hombres. En total **28.024 pensionistas. Total 67,6 m. euros año.**

ONDORIOA:

IRP (pentsioen errebalorizazio-indizea) % 0,25 eta jasangarritasun-faktorea indargabetzeko gai izan garen bezala, eta murrizketa berriak saihestu ditugun bezala, justizia zorrotzeko zerbait lortzeko gai izango gara; gutxieneko pentsioa, 1080 eurokoa, 14 ordainsaritan 2023rako.

Mobilizazioa da gakoa, gure bermea da.

Ez dugu ezer ezinezkorik eskatzen, are gutxiago EGKren diru-sarreraren nahikotasun-irizpideen arabera eta Europako Gutun Sozialaren protokolo gehigarriaren 4. artikuluan jasotakoaren arabera, LGSa hileko 1.471 euro gordinekoa izango balitz EAerako 14 ordainsaritan eta Nafarroarako 1.350 eurokoa, eta % 90 aplikatuta EAEko 1.323eko eta Nafarroako 1.215eko gutxieneko pentsioak izango balira.

CONCLUSIÓN:

Igual que fuimos capaces de derogar el IRP (índice de revalorización de las pensiones) el 0,25% y el Factor de sostenibilidad y hemos evitado nuevos recortes seremos capaces de conseguir algo de estricta justicia; la pensión mínima de 1080 euros en 14 pagas para 2023.

La movilización es la clave y nuestra garantía.

No pedimos nada imposible y menos cuando en función de los criterios de suficiencia de ingresos de la CSE y según lo recogido en el Art. 4 del protocolo adicional de la Carta Social Europea, resultaría un SMI de 1.471 euros mensuales brutos en 14 pagas para la CAV y 1.350 euros para Navarra y aplicando el 90% resultan unas pensiones mínimas de 1.323 CAV y 1.215 Navarra.



**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), eta ABSTENTZIOAK 3 (EAJ/PNV).
MOZIOA ONARTUTA GERATU DA.**

Jarraian, **EAJk aurkeztutako PENSIOEI BURUZKO MOZIOA irakurri du Gorka Sagarna zinegotziak:**

Ondorengoak adostea eskatzen diogu Irurako Udalari:

1. Estatuko Gobernuari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2018ko martxoaren 1ean gehiengo zabal batez adostu zuen akordioan xedatutakoari erantzunez, pentsio sistema nahiko eta jasangarria bermatzea, elkartasunean eta gardentasunean oinarrituta, pentsio duina jasotzeko eskubidea betez eta egiazko finantzaketa iturriak direla medio pentsio duin eta aurreikusgarriak ematen direla bermatuz.
2. Estatuko Gobernuari eskatzea gutxieneko pentsioa duintzeko esfortzua egin dezala sistema elikatzeko diru sarrerak handitzera bideratutako neurriak hartuz, sistemaren beraren gastuetan eraginez eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferentziatuz hartuz.
3. Estatuko Gobernuari eskatzea, lehen puntuan aipatzen den akordioa gogoan eta Euskadiko pentsiodunen egoera hobetzera begira ezinbestean bete behar den baldintza dela aintzat hartuz, urratsak ematen has dadila Segurantza Sozialaren eskuduntzak Euskadiko erakundeei transferitzeko, Gernikako Estatuaren 3/1979 lege Organikoaren 18.2. artikuluan eta Aldi baterako 5. Xedapenean jasotzen denarekin ados.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an gehiengo zabal batez onetsi zuen Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren 14/2022 Legearekin ados, pentsiorik baxuenak osatzen jarrai dezala hiritargoaren bizi baldintza duinei eusteko eta prestazio hau Europako estandarretara egokituta dagoela bermatuz.
5. Estatuko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari ezagutzera ematea Udal honetan adostu den akordioa.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 3 (EAJ/PNV), eta KONTRAKO BOZKAK 6 (Eh Bildu).
MOZIOA EZ ONARTU DA.**

8.- MOZIOA: EH BILDU ETA EAJ/PNV. "EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2023".

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du mozioa hau bi alderdiek adostuta ekarri dutela, ondoren Noeliak hartu du hitza eta irakurtzeari ekin dio:

Euskara eta bidea

Euskararen Nazioarteko Eguna, 2023.
Adierazpen instituzionala

Euskaldunak gara, euskaraz gara, eta hori da gure herrien nortasunaren ezaugarri esanguratsuenetakoa: udalerrri euskaldunak gara. Mendeetan zehar gure hizkuntza zamatu duten debeku, eraso, jazarpen eta erabakien gaitetik, aurten bertan ezagutu ditugun datuek argi diote: oraindik ere gure herritarren gehiengoa euskalduna da, beste inon baino sendoago dago gurean euskara, eta udalerrri euskaldunak gero eta gehiago dira. Gurean ere asko aldatzen ari da erreliatea, ordea, eta egiteko konplexuak dauzkagu aurretik; hala ere askoren artean urte askoan egindako lanaren uzta ageriko da: ezagutzak gora egin du, gero eta euskaldun gehiago gara, eta horrek ekarri du udalerrri euskaldunen lurgunea handitzea, besteak beste.

Euskararen Nazioarteko Eguna, urtero, zer garen gogoratzeko eguna izan ohi da. Herri honek munduari ematen dion kolorea euskara dela esateko eguna. Harrokeriarik gabeko harrotasun eguna. Ospakizuna. Aurten, ordea, lanbrotuta ditugu bazterrak. Hilabetez hilabete ainubera kondenatu nahi izan gaituzte. Behin eta berriro. Euskararen aurkako erasoek ez dute etenik izan, eta epaitegietatik heldu den oldarraldiak marra gorriak gaintitu ditu, euskararen beraren ofizialtasuna ere zalantzan jartzearaino.

Euskal jendarteak eta euskal erakundeek urte askoan kontsentsu zabalarekin egindako bidea mugatu nahi izan dute. Udalerrri euskaldunek bertako hizkuntza biziberritzeko eta euskara dagokion lekura itzularazteko egiten ditugun urratsak debekatu nahi dizkigute. Gazteleraren makulupean ibiltzera eta bigarren mailakoak izatera behartu nahi gaituzte. Baina euskara da gure herriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko beharra daukagu udalerrri euskaldunek.

Izan ere, erakundeei eredu izatea dagokigu. Herritarren eredu. Ahalegin eta konpromiso handiari esker, larreakoa nahi zuten hizkuntza noranahikoa izatea lortu du herri honek, eta ezin dugu zabaldutako bidean atzera egin. Berdatzen hasitako basoa berriro lehortzea onartu. Horregatik, udalerrri euskalduna garen heinean, adierazpen honekin bi konpromiso ezagutarazi nahi ditugu. Batetik, euskararen biziberritzean eta herritarren hizkuntza eskubideen defentsan eredu eta bide-urratzaile izateko konpromisoa. Bestetik, euskarak ezinbestekoa duen lege-babesa lortzeko lanean gainerako erakundeen eta eragileen bidelagun izateko konpromisoa.

Gaur egungo atakari aurre egiteko benetako lege-orubea behar baitu euskarak, erdaren erauntsiari aurre egiteko egiturazko neurri sendoak behar dituen bezala. Dagokigun arduratik, horiek lortzeko lanerako eta elkarlanerako ordua dugu orain erakundeok, inoiz baino gehiago. Euskararen lurgunea handitu dela esateaz gain, euskararen lurgunea sendotu ere egin dela ikus dezagun hurrengo urtean. Izan gaitezen eredu. Lehenetsi etorkizuna. Erakutsi eguzkia ainubean denari. Eman diezaiegun euskara eta bidea herritarrei.

2023ko abenduaren 3an

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), eta 3 (EAJ/PNV).
MOZIOA AHOBATEZ ONARTU DA.**

9.- MOZIOA: EAJ/PNV. "EKIALDE HURBILEKO MUTURREKO INDARKERIA EGOERARI BURUZKOA".

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du mozioa hau bi alderdiek adostuta ekarri dutela,

"EH Bildu / EAJ-PNV mozioa, Gaza herriaren egoera"

Ekialde hurbilean, hamarkadak irauten duen gatazka eta azken asteetako muturreko indarkeriaren aurrean, Irurako Udalak:

1. Kementsu arbuiaztan ditu Hamasek Israelgo biztanleen aurka egindako erasoak, ehunka heriotza eta zauritu eragin baitituzte.
2. Kemenez arbuiaztan ditu Lehen Ministro israeldarrak egindako gerra-deia eta palestinarren aurkako ondorengo erasoak, milaka heriotza eta zauritu eragiten ari direnak, gehienak zibilak. NBE idazkari nagusiaren hitzetan, haurren kanposantua bihurtu du Israelek Gaza.
3. Elkartasuna erakusten du ekintza horietako biktima guztiekin eta haien familiekin.
4. Eskatzen du berehala buka dadila biztanleria zibilaren aurkako indarkeria indiskriminatua.
5. Israeli eskatzen dio berma dezala osasun-laguntzarako, laguntza humanitariorako eta garapen- laguntzarako sarbidea, biztanleria zibilaren oinarrizko premiak eta eskubideak estaltzea bermatzeko.
6. Korridore humanitarioak irekitzea eskatzen du, laguntza humanitarioaren eta gatazkaren biktimen zirkulazio segurua errazteko.
7. Bahitutako pertsonak berehala askatzea eskatzen du.
8. Dei egiten du edozein ekintza Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen esparruan egin dadin, eraso horien biktima guztien giza eskubideak errespetatu daitezzen.
9. Europako gobernuak eskatzen die beren esku dauden mekanismo diplomatiko guztiak aktiba ditzatela gatazkaren eskualde mailako gorakada saihesteko eta eskualdeko bakearen, segurtasunaren eta egonkortasunaren aldeko konpromiso sendoan, bitzta errugabe gehiago ez galtzeko.
10. Arbuiaztan ditu bi estatuen konponbidearen ikuspegia urruntzen duten alde bakarrek neurri guztiak, hori baita erantzun bakarra palestinarren eta israeldarren asmo nazional legitimoak, eta bakerako eta segurtasunerako funtsezko elementua.
11. Dei egiten du, inoiz baino premiazkoago, Palestinako lurraldeen okupazioarekin amaitzeko, gatazkaren egiturazko kausei heltzen dieten neurrien ezarpenean aurrera egiteko oinarri gisa, parte-hartze politikoa bermatuz, benetako demokrazia eraginkorraren testuinguruan bidezko bake iraunkorraren oinarriak ezartzeko.

Iruran, 2023ko azaroaren 28a.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), eta 3 (EAJ/PNV).
MOZIOA AHOBATEZ ONARTU DA.**

10.- MOZIOA: EAJ/PNV ETA EH BILDU. “ZAINZARI BURUZKOA”.

Alkateak gaia aurkeztu ondoren, bi mozio aurkeztu dituztela adierazi du eta hurrenkeran lehenengoa EAJ taldeak aurkeztu duela beraz, Gorka Sagarna zinegotziak hartu du hitza eta EAJ/PNVk aurkeztutako mozioa irakurri du:

EUSKAL ZAINZTA EREDU SENDO, ERALDATZAILE, FEMINISTA ETA KOMUNITARIO BATEN ALDEKO MOZIOA

Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatzeko. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan; eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredu lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, eragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan.

Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (% 22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratorzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzeko ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, iruratarrak eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Irurako Udalak konpromisoa hartu du Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berrian parte hartzeko, eta zainketa-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. **Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza.** Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatezkoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.
2. **Zainketen profesionalizazioa.** Zaintza-modu formal eta informaletan diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarriketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.
3. **Etxeko zaintza lehenesten duen sistema.** Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizi-tzen jarraitu nahi dute. Horregatik, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.
4. **Sistema inklusiboa eta berdinzalea.** Zaintzaren ardura emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu desberdintasun-egoera hori konpontzeko neurriak hartzea feminismo konprometitu eta berdinzale batetik, baita arraza edo jatorri etnikoarekin lotutako diskriminazioekin amaitzeko ere, lanerako segregazioa eta desberdintasun sozialak murriztuz.
5. **Koordinazio soziosanitarioa areagotzea.** Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetzak handiagoa eta hobeagoa izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jaso dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.
6. **Komunitatea indartzea.** Giza garapen iraunkorrerako gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.

7. **Zainketen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.** Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zainketa-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaualdien arteko konpromiso berrituarekin.
8. **Zainketen elkarlaneko gobernantza.** Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.

Noelia zinegotziak, erantzun du mozioa eta zera adierazi du: “

EAJk Gipuzkoako udaletan aurkeztu duen proposamena aurpegi garbiketa eta grebaren kontrako ofentsiba betean dator. Bertan agertzen diren ideia batzuk konpartitu ditzakegun arren, eta konpartitzen ditugu, badaude egiten diren eta inondik inora gure egin ezin ditzakegun afirmazio batzuk. Gainera, aurkeztutako moduak eta helburuak ez du zaintzaren gaineko itun sozial bat elikatzen, inposatu nahi den ikuspegi utilitarista bat baizik. Zentzu honetan, oso deigarria da, Itun horren “bonbardeo mediatiko-komunikatibo” batean gauden honetan, itun hori guri ez modu formal ez modu informalean aurkeztu ez izana. Itxura guztien arabera, itunak idea “komunikatibo” batetik haratago ez du edukin argirik.

Herri itunak elkarrekin eraiki behar dira. Gizarte Zerbitzuen I Plan Estrategikoaren ebaluazioa aurkeztu zenean ere esan genuen, guk uste dugu Herritarren zaintza eta babesa konpartitutako herri proiektu bat izan behar dela. Horrek uste dugu 2014ko kontsentsuak berreskuratzeko ahalegina egin behar dela, horretan saiatu gara azken urte hauetan buru belarri, baina azken urte hauetan EAJ-ren gizarte zerbitzuen inguruko begirada bakarra inposatu nahi izan da. Horregatik, mozio honen kontra bozkatuko dugu.

BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 3 (EAJ/PNV), eta AURKAKO BOZKAK 6 (Eh Bildu). MOZIOA EZ ONARTU DA.

Jarraian zaintza inguruko eh bilduk aurkezturiko bigarren mozioa irakurri du Noelia zinegotziak:

Zaintza sistema publiko komunitarioa

EAEn Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak Gizarte Zerbitzuetarako eskubidea eskubide subjektibotzat aldarrikatu zuen, herritartasunari dagokion eskubidea den aldetik. Baina, errealitateak agerian utzi du helburu hori ez betetzeaz gain, lurraldeen arteko eta lurraldeen barruko desorekak eta desberdintasunak eta, ondorioz, pertsonen artekoak, murriztu beharrean, areagotu egin direla azken urteotan: prestazio eta zerbitzu publikoen estaldura gutxitu da eta hauek eskuratzeko eragozten duten oztopoak ez dira egotzi.

Ohiko zaintza-sistemak gainbehera izan dute eta erakundeek ez dute beharrezkoa den erantzunik euskal gizartean sortzen ari diren zaintza beharrei, ondorioz, egungo zaintzak desegokiak, eskasak, prekarioak eta desberdintasun sozialen sortzaile dira eta ez dira libreki aukeratuak. Egun, Zaintzak gurean era eskas, sexista eta merkantilista batean ebazten dira.

Zaintzen antolaketa gaur egun ezagutzen dugun moduan ez da jasangarria. Biztanleriaren zahartzearen ondoriozko desoreka demografikoak zaintza lanak areagotu ditu, eta are gehiago areagotuko ditu etorkizunean. Zaintzaren krisi sakon batean murgildurik gauden honetan, zaintza beharrezkoa den ondasun unibertsal bezala onartu, zaintza lanak familia eremutik atera eta emakumeon bizkarretik kendu eta zaintzen duten erakundetzeak sortzea da herri bezala dugun premia handienetako bat.

Horrela, ezinbesteko gertatzen da zaintzen demokratizaziorako bidean jauzi bat eman eta Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako Zaintza duin eta unibertsalak bermatuko dituen Sistema Publikoaren erakundetze berri bat; gizarte zerbitzuei dagokionean herritarrentzako publiko bakar izan behar dena eta, horrekin, zaintzak baloratu, aitortu eta konpentsatzeko prozesua abian jartzea.

Zaintza sistema publiko komunitarioa eraikitzeko, behetik gora egiten den prozesu baten beharra daukagu, eta horretarako eztabaidaguneak, ezberdinen arteko harreman espazioak eta kontsentsuak topatzeko borondatea ezinbestekoak dira. Esaten denaz gain, egiten den moduak izugarritzko garrantzia du honelako herri erronka baten aurrean.

Kontziliazio erantzukidea da, batetik, pertsonen betebeharrak eta beharrezkoak, familiar eta profesionalen erantzuteko orduan bidezko oreka lortzeko xedea duten neurrien multzoa eta, bestetik, zaintzak berrantolatuz inplikaturako eragile guztiek, gizonek, erakunde publikoek eta enpresek, beren erantzukizunak beren gain har ditzaten bultzatuko diren neurrien multzoa. Kontziliazio eratzukidearen bidez, lan horren ardura ez zaie egokituko nagusiki emakumeei, eta lanaren gaur egungo banaketa desorekatua zuzenduko da, zeina emakumeek bizitzako hainbat esparrutan jasaten duten desberdinkeria- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren oinarrian baitago. Alde horretatik, euskal administrazio publikoek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztu behar dute. Horretarako, alderdi hauek sustatuko dituzte: ordaindu gabeko etxeko lan eta zaintza-lanetan gizonak erantzukide izatea; enplegu-egiturak bizitza pertsonalaren eta familiarren betebeharrak eta beharrezkoak egokitzea; zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa izatea; prestazio ekonomikoak eta neurri fiskalak prestatzea, eta delako helbururako egoki irizitako beste edozein neurri.

Balorean jartzen dugu gaiaren inguruan lanean aritu den eta badabilen mugimendu feminista, sindikatua, eragile sozial ezberdinak eta hirugarren sektorea. Guztien hausnarketa, ekimena eta proposamenak ezinbestekoak dira prozesu honetan. Besteak beste, balorean jarri nahi dugu elkarlanerako helburuz sortu den dinamika mobilizatzailea, zeinak greba feminista orokor baten bidez zaintzen krisia mahaigaineratu eta aldaketarako erronkak norabidetu nahi dituen.

EAEko Berdintasun Legearen erreformak dakarren bezala, "Pertsona guztiek zaintzak jasotzeko duten eskubidea bultzatuko da, zaindutako pertsonen autonomia sustatzen dela bermatuta eta emakumeek eusten dituzten familia-oinarriko zaintza-ereduak ez erreproduzitzea lehenesten duten neurriak abian jarrita". Honetarako, besteak beste "Euskal botere publikoek zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa sustatu behar dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta zerbitzu eskuragarri, malgu, kalitateko eta eskuraerazten bidez, autonomia funtzional nahikoa ez izateagatik egunero jardunetarako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen zaintza-beharrizanei erantzuteko. Hori guztia zaintza profesionalen sektorean lan-baldintza duinak bermatuz egingo da".

Ongizate Estatuaren egiazko zutabe izango litzatekeen, zaintza duin eta unibertsalerako eskubidea bermatzeko erakundetze berri baten sortzeko prozesua abiatzea ezinbesteko jotzen da eta, horretan, besteak beste:

- Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren aurreikusitako zaintzara zuzendutako prestazio eta zerbitzuen berdefinizioa burutu behar da, bai eta horiek garatzeko eta horien sarea hedatzeko inbertsioak argi definitu behar dira.
- Zaintzak ezin du negozio izan eta Gizarte Zerbitzuen desmerkantilizazioa eta zaintza sektoreko lan baldintzak duintzeko prozesua abiatzea ezinbesteko jotzen da.
- Gizarte Zerbitzuen doakotasuna bermatzeko prozesu graduala abiaraztea.
- Zerbitzuen finantziazioaren inguruko eztabaida ireki behar da.

Horiek horrela, Irurako Udalak honako konpromisoak hartuko ditu:

- 1- Zaintzaren inguruko diagnostikoa egitea
- 2- Zaintzaren inguruko ekimenak martxan jartzea

Mozioari erantzunez, **Sagarna zinegotziak** hartu du hitza eta Eh Bilduri erantzunez adierazi du ezin dutela mozioaren aldeko bozka eman, guztiz demogogoia eta iraingarria iruditu zaiolako, guztiz goitik behera; inklusio gezurretan oinarritzen den dokumentua dela iruditzen zaiola. Galdetzen du zein diren erabiltzen dituzten datuak esandakoetan oinarritzeko.

Zaintza publiko komunitarioa aldarrikatzen dutela esaten du eta zaintza publikoa erdigunean defendatzen zenuela, ez da ulertzen komunitarioa kontzeptuak zer esan nahi duen, zaintza denak familiarik kanpo uzten dituztela, ez du egokia ikusten, gehinbat adineko pertsonak etxean zainduak izan nahi dutenean.

Estandura gutxitu denaren kontuarekin dio, inoiz baino erabiltzaile gehiago daude, aurrekontu haundiagoa 115 milioi euro direla.

Greba feministaren inguruan, dio, beraiek aurkeztutako idatziarekin erabat bateragarria dela, greba aldarrikapen sindikala dela.

Gaineratzen du, jarrera eraikitzailea izan behar dela. Desmerkantilizazioa, EAJri leporatzen zaion beste gai bat, eta dio, ea zergatik ez diren herriko zerbitzu guztiak publikatzen guztiz.

Bere argudioak bukatzeko, esandakoen inguruan azalpenak eskatzen dizkio oposizioari.

Alkateak hartu du hitza eta, erantzun du: zaintzaren inguruan dagoen arazoa ez dela goitik beherako zerbait, agente batzuk daudela eta behetik gorako prozesu bat izan beharko zuela zaintzaren ingurukoa, gaur egun ematen ari ez dena.

Ez dela bakarrik ikusi behar horretara bideratzen den aurrekontua, ikusi besterik ez dagoela zenbait greba egon diren sektore horretan eta baldintzak hobetzeko, dagoena baino dexente gehiago igo beharko litzatekeela aurrekontua.

Uste du arazo bat dagoela, forma aldetik eta arazoari nola aurre egin behar den ikuspegi bat. Pentsaten du bidean topatuko direla, baina horretarako gauzak aldatu beharko direla.

Sagarna zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du erronka baten aurrean gaudela eta hori heldu behar zaio, baina, orain arteko sistema guztia zalantzan jartzea ez du uste egokia denik, eta dio, gauza bat dela aldarrikapen sindikala (guztiz bidezkoa dena), baina horrek justifikatzen du orain arteko sistema guztia irauli behar izatea?

Zaintzaileen lan baldintzak hobetu daitezke, EAJren idatzian ere horrela jasota dago, datorren urterako hitzarmen berri bat sinatu berri dute. Ez du uste hain txarra denik, eta gaineratzen du EAJ bere taldetik, behintzat beti aldarrikatuko dutela zaintzaileen figura eta zaintzaileen lana, ezinbestekoa delako eta guztioi eragingo digulako.

Beraz, eskatuko lukeena da, ez nahastea greba feminista eta zaintzen eredia edo sistema.

Eta adierazten du, EH bilduren idatzian hitz batzuk oso larriak iruditzen zaizkionala eta ematen duela errealitatea ez dela ezagutzen, asko dagoela egiteko onartzen du, baina idatzia nahiko gogorra dela esanaz bukatzen du bere interbentzioa.

Alkateak, dio uste dutela arazo bat dagoela gai honekin eta ez zaiola ematen ari dagokion irtenbidea, ez delako agente guztiakin kontaktzen ari, langileen gaia beraiek aldarrikatzen duten zerbait dela eta ez dutela ezer gehiago gehitzekorik.

**BOZKETA.- ALDEKO BOZKAK 6 (Eh Bildu), eta AUKARKO BOZKETA 3 (EAJ/PNV).
MOZIOA ONARTU DA.**

11.-GALDE-ERREGUAK:

Ez dago.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:45etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.